

VOGUEKO AZALETIK HITLERREN BAINURA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Munich, 1945eko apirilaren 29a. Lee Miller eta David E. Scherman argazkilariak Hitlerren apartamentuan sartu ziren. "Helbidea urtetan poltsikoan gordeta izan nuen" adieraziko zuen gero Mille- rrek. Hitlerren bainugelan, arropa eran- tzi eta bainuontzian sartu zen Miller. Schermanek argazkia atera zion, botak parean zituela, ordu batzuk lehenago bisitatutako Dachau kontzentrazio es- parruko lohiaz zikinduta. Baina ez zuen lortuko han ikusitakoak bainuan garbi- tzea. Gau hartan Hitlerren Municheko apartamentuko ohean egin zuen lo Mil- lerrek. Adolf Hitlerrek biharamunean egin zuen bere buruaz beste, Berlinen.

Elizabeth Miller Poughkeepsien (New York) jaio zen 1907an. 19 urte zituela auto batek harrapatu zuen ia, Manhat- taneke kale batean. Condé Nast *Vogue* aldizkariako editoreak lagundu zion ez- beharra saiesten, eta, ezustean, modelo karrera abiarazten. Hurrengo urtean, 1927ko martxoaren 15ean, Lee Mille- rren aurpegia *Vogue*-ko azalean agertu zen, George Lepapek marraztuta. Edna Woolman Chase aldizkariako editore bu- ruarentzat Milerrek "neska modernoa" irudikatzen zuen, eta hurrengo bi urtee- tan New Yorkeko modelo preziatueneta- koa izan zen.

Modelo lanaz nekatuta eta kameraren beste aldean aritzeko nahiak bultzatuta,



VOGUE

1929an Parisera joan zen. Man Ray ar- tistaren estudiora iritsi eta "zure ikasle berria naiz" esan omen zion. Man Rayk ez zuen aprendizik hartzeko ohiturarik, baina, berehala, haren ikasle, modelo, musa eta maitale bihurtu zen Miller. Pa- blo Picasso, Paul Éluard eta Jean Coc- teau ezagutu zituen, besteak beste, Pari- seko egonaldian.

1932an itzuli zen New Yorkera. Argaz- ki estudioa jarri zuen han, eta lan enkargu- ak proiektu artistiko surrealisten- ki uztartu zituen handik aurrera.

Bigarren Mundu Gerrak Londresen harrapatu zuen argazkilaria, Roland Penrose senarrarekin bizi zela (hura ere artista surrealista). Londresko



DAVID E. SCHERMAN

Ezkerrean, Lee Miller 1920ko hamarkadaren amaieran, 'Vogue' aldizkariako egindako argazkian. Eskuinean, modelo ohia 1945ean, Hitlerren bainuontzian.

Blitz-aren argazkiak atera zituen, eta ingurukoen kezkei jaramonik egin gabe, *Vogue*-ko gerra korrespontsal akredita- zioa lortu zuen. Pariseko liberazioa eta Alsaziako gudua, Saint Maloko napal- mezko lehen eraso eta Buchenwald eta Dachau kontzentrazio esparruak foto- grafiatu zituen.

1977an hil zen Ingalaterran, min- biziak jota, 70 urte zituela, eta gerran bizi izandakoek eragindako estres post- traumatikoa erabat gainditu gabe. ■



FAN WENQUAN

Elikadura-sexismoa Brontze Aroko Txinan

Txinako erdialdeko lautadan, Ibai Horia- ren arroan aurkitutako hainbat giza he- zur aztertu dituzte, isotopo egonkorren analisiaren bidez. Eta *Proceedings of the National Academy of Science* aldizka- rian jakinarazi dutenez, gizonezkoek eta emakumezkoek dieta oso desberdina zutela ondorioztatu dute: emakumeek garia eta garagarra jaten zuten nagusiki

eta gizonek, aldiz, animalia jatorrizko produktuak. Beraz, emakumeei nutrizio balio txikiena duten elikagaiak uzten zizkieten eta haien hezurrek, ia 3.000 urte geroago, dieta kaxkarrak eragin- dako osasun arazoak erakusten dituz- te oraindik. Hil ondoren ere jarraitzen zuen diskriminazioak, emakumezkoen hilobiak askoz apalagoak baitziren. ■